



ENPLEGUAREN ETA SUSPERTZE EKONOMIKOAREN ALDEKO ESPARRU- PROGRAMA 2017-2020

Jarraipen eta Ebaluazio Txostena 2017

HERRI-HELBURU HANDIA, 2020rako


XI. legegintzaldiaren (2017-2020) Gobernu Programak (zeina Gobernu Kontseiluaren 2017ko otsailaren 21eko Erabakiz onetsi baitzen) jasotzen du bere lau oinarrietako bat dela “enplegua, suspertzea eta jasangarritasuna”; oinarri horretako ardatzetako bat da **ENPLEGU GEHIAGO ETA HOBEA** sortzea, **Enpleguaren eta Suspertze Ekonomikoaren aldeko Arlo Publikoaren eta Pribatuaren arteko Estrategia Global** baten bidez.

Helburu horrekin, 2017ko martxoaren 28an, Jaurilaritzak onetsi zuen **“Euskadi 2020” Enpleguaren eta Suspertze Ekonomikoaren aldeko Esparru Programa**; horrek 8.800 milioi euro aurreikusten ditu 2017-2020 aldirako, guztira, eta bi jarduketa-ardatz handi: Enpleguaren ardatza, 1.175 milioi euroko aurrekontukoa, eta suspertze ekonomikoaren ardatza, 5.225 milioi eurokoa.

Enplegua sortzeko helburu orokorra ezarrita, aldi berean landu behar dira kualitatiboagoak diren zenbait helburu espezifiko: esaterako, enplegua eskuratzeko aukerak berdinak, eta, bereziki, gazteak laneratzea sustatzea; enpleguen kalitatea berreskuratzea; eta pertsonen zein enpresei zerbitzuak eta aukerak eskaintzen dizkien Euskal Enplegu Zerbitzu bat eratzea.

Datu kuantitatiboei dagokienez, bi helburu estrategiko zehatz lortu behar dira: batetik, langabezia-tasa % 10 baino txikiagoa izatea 2020an; eta, beste alde batetik, 20.000 gazteri lan-aukera bat eskaintzea 2017-2020 aldian.

HERRI-HELBURU HANDIA



EDUKIEN AURKIBIDEA

1.-	Testuingurua	4
2.-	Jarraipen-metodologia	12
3.-	2017an lortutako eraginaren emaitzak eta aurrekontuaren exekuzio-maila	15
4.-	Egindako jarduera nagusiak	25
5.-	40 inbertsio-proiektu estrategiko berri	34
6	Testuinguruaren, jardueraren, emaitzen eta eraginaren adierazle orokorrak neurtzea	39
7	Ondorioak	42
8	Eranskina: Jarduketan xehetasunak, ardazka eta esparruka	44

1.-


TESTUINGURUA

EUSKADI 2020 PLANGINTZA ESTRATEGIKOAN SARTUTA DAGO ESPARRU-PROGRAMA

Gobernuak XI. legegaldian egingo dituen ekintzak 15 plan estrategikoren bidez egituratu dira. Lehendakariak ezarritako helburu estrategikoei erantzuteko planak dira, eta «Europa 2020 Estrategia»rekin lerrotatuta daude. Plangintza horrek giza garapena, hazkunde ekonomikoa eta hazkunde adimenduna bultzatu nahi ditu EAEn. Planak, halaber, Nazio Batuen Garapen Jasangarrirako helburuekin lerrotatuta daude (bost «P»ak): People; Prosperity; Peace; Planet eta Partnership.

2017-2020 aldirako Enpleguaren eta suspertze ekonomikoaren aldeko esparru-programak bat egiten du Gobernuak legealdi honetarako onetsi dituen plan estrategikoen programarekin. Jardute integratzailea planteatu da, eta bertan txertatzen dira datozen urteetan enpleguaren eta, oro har, ekonomia-jardueren arloetan egingo diren politikak.

EUSKADI 2020 PLANGINTZA ESTRATEGIKOA



2 JARDUTE-ARDATZ: ENPLEGUA ETA SUSPERTZE EKONOMIKOA

Esparru-programak izaera bateratzailea du. Herri-estrategia moduan eratu da, eta bost plan estrategiko bidez garatu eta zehaztuko da:

- Enplegu-plana.
- Berrikuntza-plana (ZTBP 2020).
- Nazioartekotze Plana.
- Industrializazio Plana.
- Inbertsio publikoko programa.

Plan horiek, gainera, 2020 aldirako Enpleguaren Euskal Estrategian zehaztutako gidalerro askoren garapen operatiboa bultzatzen dute. Estrategia hori herrialdeko eragile sozialekin ados jarrita osatu zen, betiere ildo osagarriak —hala nola gure hezkuntza formala etengabe hobetzea (derrigorreko hezkuntza, lanbide-heziketa eta unibertsitate-sistema)— landu beharra kontuan hartuta. Horrela, Enpleguaren Euskal Estrategiak (2020) bere ikuspegi orokorretik proposatzen dituen erronkei aurre egin ahalko diegu.

Bost plan horiek bi jardute-ardatz handitan egituratuta daude: hazkundera eta enplegua berreskuratzea, Enplegu Plan Estrategikoaren bidez; eta ekonomia suspertzea, 4i Estrategiaren bidez (inbertsioa, berrikuntza, nazioartekotzea eta industrializazioa).

2 JARDUTE-ARDATZ: ENPLEGUA ETA SUSPERTZE EKONOMIKOA

ENPLEGUA		SUSPERTZE EKONOMIKOA	
E.1	ETEak, GIZARTE-EKONOMIA ETA TOKIKO GARAPENA	R.1	INBERTSIOA
E.2	EKINTZAILETZA SUSTATZEA		
E.3	GAZTEEN ENPLEGUA SUSTATZEA	R.2	BERRIKUNTZA
E.4	ENPLEGURAKO PRESTAKUNTZA		
E.5	LANERATZEKO PIZGARRIAK	R.3	NAZIOARTEKOTZEA
E.6	RENOVE BIRGAITZE-PROGRAMAK		
E.7	ENPLEGU PUBLIKOA		
E.8	ENPLEGUAREN KALITATEA HOBETZEA	R.4	INDUSTRIALIZAZIOA
E.9	ENPLEGUAREN EUSKAL SISTEMA HOBETZEA		

BALIABIDE EKONOMIKOAK

Esparru-programaren **aurrekontu-zuzkidura zenbatetsia 8.800 milioi eurokoa da 2017-2020 aldirako**, eta honako osagai hauek ditu:

	Zenbatekoa
I.- Enplegu-plana (*)	1.175 milioi euro
II.- Ekonomia suspertzeko planak	5.225 milioi euro
Aurrekontu-baliabideak, guztira (I + II)	6.400 milioi euro
Abalak	2.400 milioi euro
Baliabideak, guztira	8.800 milioi euro

(*) "E.7- Enplegu publikoa", "E.8- Enpleguaren kalitatea hobetzea" eta "E.9- EAEko enplegu-sistema hobetzea" izeneko eremu operatiboei lotutako baliabide ekonomikoak ez dira sartu, gehienbat, aurrekontu-eduki zuzenik gabeko ekintzak dituztelako; edo barneko kostuak dituztelako, batik bat.

ENPLEGUAREN ETA SUSPERTZE EKONOMIKOAREN ALDEKO ESPARRU-PROGRAMA 2020

2017-2020 ALDIRAKO ZENBATETSITAKO BALIABIDEAK, GUZTIRA (milioi eurotan)

1. ARDATZA: ENPLEGUA

63 milioi euro	E.1	ETEak, GIZARTE-EKONOMIA ETA TOKIKO GARAPENA
86 milioi euro	E.2	EKINTZAILETZA SUSTATZEA
99 milioi euro	E.3	GAZTEEN ENPLEGUA SUSTATZEA
282 milioi euro	E.4	ENPLEGURAKO PRESTAKUNTZA
298 milioi euro	E.5	LANERATZEKO PIZGARRIAK
347 milioi euro	E.6	RENOVE BIRGAITZE PROGRAMAK

ENPLEGU-PLANA

1.175 milioi euro

AURREKONTUA

ENPLEGUA: 1.175 milioi
euro

SUSPERTZEA: 5.225
milioi euro

ABALAK
2.400 milioi euro

GUZTIRA
8.800 milioi euro



2. ARDATZA: SUSPERTZE EKONOMIKOA

R.1	INBERTSIOA	2.610 milioi euro
R.2	BERRIKUNTZA	1.765 milioi euro
R.3	NAZIOARTEKOTZEA	125 milioi euro
R.4	INDUSTRIALIZAZIOA	725 milioi euro
		ABALAK: 2.400 milioi euro


4i ESTRATEGIA

5.225 milioi euro

2.400 milioi euro
ABALAK

AURREIKUSITAKO ERAGINA, 2017-2020

ENPLEGUA HOBEA ETA ENPLEGU GEHIAGO sortzeko planteatu diren herri-helburuekin batera, EAEko ekonomian eragin hau izatea aurreikusi da programan: 45.000 lanpostu sustatzea; 6.000 enpresa berriri laguntzea; 100 ikerkuntza-proiektu berri finantzatzea; 1.200 ETEri laguntzea kanpoko merkatuetan sartzen; eta 4.100 berrikuntza-proiekturi laguntzea.



Helburu global horiek, honela xehakatu dira:

58.000 lanpostu sustatzea

12.000 lanpostu sortzea, enpresa berriak sortzearen ondorioz.

15.000 lanpostu, etxebizitzak eta ekipamendu publikoak birgaitzeko laguntza publikoari lotuta.

13.000 lanpostu, enplegu publikorako eskaintza (txanda irekia).

6.000 enpresa berriri laguntzea

5.000 mikroenpresa eta autonomo berri.

1.000 enpresa berritzaile berri.

100 ikerketa-proiektu estrategiko berri finantzatzea

100 proiektu estrategiko, I+G arlokoak, enpresen lidergoarengatik sortuta eta EAEko gaitasun zientifikoak eta teknologikoak baliatuta.

1.200 ETERi laguntzea atzerriko merkatuetan sartzen

200 ETERi laguntzea nazioartekotzeko planak egiten.

1.000 ETERi laguntzea nazioartekotzeko proiektuak martxan jartzeko ekintzetan.

1.100 ETERi laguntzea —batik bat, industriaren arlokoak—, modernizatzeko eta hedatzeko beren proiektuetan

1.000 ETE, teknologia modernizatzeko eta produkzio-prozesuak hobetzeko proiektuekin.

70 ETE, hazkunde- eta hedapen-proiektuekin.

30 ETERi laguntzea, zailtasunei aurre egin diezaieten.

4.100 berrikuntza-proiekturi laguntzea, ETEetan egitekoak

600 ETE, kudeaketa aurreratuko, berrikuntzarako eta lehiakortasunerako proiektuekin.

3.500 ETE, I+G arloko proiektuekin eta produktu berriak garatzeko proiektuekin.

* Hasieran, 45.000 lanpostu sustatzea aurreikusi zen. Baina aurreikuspen horri, 13.000 lanpostu gehitu zaizkio: Administrazio Orokorrean, Osakidetzan, Hezkuntzan eta Ertzaintzan atera diren lan-eskaintza publikoetan gehitutako lanpostuak, hain zuzen ere.

Gazteen enpleguari dagokionez, helburua da 20.000 gazteri lan-aukera eskaintzea:

20.000
gaztek
lan-aukera
bat
edukitzea


- **3.000** gazte kontratatzea enpresek, beraien ikasketekin bat datozen lanpostuetan, lehen lan-aukera emanda (Lehen Aukera).
- **5.000** gaztek hezkuntza-mundutik lan-mundurako trantsizioko esperientzia praktikoa izatea.
- **3.500** gazte ekintzaile berri.
- **2.500** gazte kontratatzea tokiko eta eskualdeko enplegu-planen bidez.
- **3.200** gaztek EAEko administrazio publikoan erretiratzen diren pertsonen lanpostuak ordezkatzea.
- **400** gazte sektore pribatuko errelebo-kontratuen onuradunak izatea.
- Atzerrian prestakuntza eta esperientzia eskuratu dituzten **200** gazteri itzultzen laguntzea.
- **1.800** gaztek enpresa-esperientzia praktikoa bereganatzeko beken onuradun izatea.
- **400** gazte aukera-arlo zehatzetan sartzeko eta garapen profesionala egiteko laguntza-programen onuradunak izatea.

2.-

JARRAIPEN-METODOLOGIA

JARRAIPEN- ETA EBALUAZIO-PROZESUAREN IKUSPEGI OROKORRA

2017-2020 aldirako Enpleguaren eta Suspertze Ekonomikoaren aldeko Esparru Programaren jarraipena eta ebaluazioa honela diseinatu da: jarduketen **etengabeko barne monitorizazioa**, urteroko kontu-emateak eta amaierako kontu-emate bat.



JARRAIPEN-METODOLOGIA

Egindako lanen jarraipena eta kontrola **programaren bi jarduketa-ardatzetan zerikusia duten sailburuordetzei egindako zuzeneko informazio-eskaeren** bidez egin da, ekimenen egoera, eraginaren emaitzak eta aurrekontuaren exekuzio-maila egiaztatze aldera.

Halaber, esparru-programaren definizioan jasota zegoen bezala, 2017ko azaroaren 14an **Enpleguaren eta Suspertze Ekonomikoaren aldeko 2020 Esparru Programaren Jarraipen Batzordea** eratu zen, Lehendakariaren Idazkaritza Nagusiak koordinatuta eta Lehendakariatza beraz gain 4 sailletako 9 sailburuordetzak osatuta. Batzordeak ohiko 2 bilera egin ditu: bata, 2017ko azaroan, eta, bestea, 2018ko martxoan.


ESPARRU-PROGRAMAREN EXEKUZIOAN ETA JARRAIPENEAN ZERIKUSIA DUTEN JAURLARITZAREN ARLOAK			
SAILBURUORDETZA	JARRAIPEN-BATZORDEA	JARDUKETEN BERRI	SAILA
Lehendakariaren Idazkaritza Nagusia	X	X	Lehendakariatza
Kanpo Ekintzarako Idazkaritza Nagusia		X	
Erakunde Harremanetarako Sailburuordetza		X	Gobernamendua
Funtzio Publikoko Sailburuordetza	X	X	
Teknologia, Berrikuntza eta Lehiakortasun Sailburuordetza	X	X	Ekonomiaren Garapena eta Azpiegiturak
Industria Sailburuordetza	X	X	
Nekazaritzako, Arrantzako eta Elikagai Politikako Sailburuordetza	X	X	
Azpiegitura eta Garraio Sailburuordetza		X	
Enplegu eta Gazteria Sailburuordetza	X	X	Enplegu eta Gizarte Politikak
Ingurumen Sailburuordetza		X	Ingurumena, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza
Etxebizitza Sailburuordetza		X	
Ekonomia, Finantza eta Aurrekontu Sailburuordetza	X	X	Ogasuna eta Ekonomia
Administrazio eta Zerbitzuen Sailburuordetza		X	Hezkuntza
Unibertsitate eta Ikerketa Sailburuordetza	X	X	
Lanbide Heziketako Sailburuordetza	X	X	
Administrazio eta Finantzaketa Sanitarioko Sailburuordetza		X	Osasuna
Turismo eta Merkataritza Sailburuordetza		X	Turismoa, Merkataritza eta Kontsumoa
Lan eta Gizarte Segurantzak Sailburuordetza	X	X	Lana eta Justizia

3.-

2017an LORTUTAKO ERAGINAREN EMAITZAK ETA AURREKONTUAREN EXEKUZIO-MAILA

2017an LORTUTAKO EMAITZEN IKUSPEGI OROKORRA

2017an, **2.083 milioi euro** bideratu dira, guztira, Enpleguaren eta Suspertze Ekonomikoaren aldeko 2020 Esparru Programa exekutatzeko, honela banatuta:



2017an EXEKUTATUTAKO BALIABIDE EKONOMIKOEN IKUSPEGI XEHATUA

2017rako aurreikusitako baliabide ekonomikoen ikuspegitik, **Esparru Programaren aurrekontuaren exekuzio-maila aurreikusitako zuzkidura ekonomikoaren % 97koa izan da.** Ardatzei dagokienez, Enplegu Planaren aurrekontuaren % 93 exekutatu da, eta Ekonomia Suspertzeko Planen aurrekontuaren % 96 exekutatu da, guztira.

Kontuan hartuta 2017-2020 aldirako aurreikusitako aurrekontu orokorra, aurrekontuaren exekuzioaren aurrerapen-maila % 24koa da.

	Aurreikusitako zenbatekoa (2017-2020)	Aurrekontuetako zenbatekoa (2017)	Egikaritutako zenbatekoa (2017)	2017rako aurreikusitako aurrekontuaren exekuzio-maila	2017-2020 aldirako aurreikusitako aurrekontuaren exekuzio-maila
I.- Enplegu-plana (*)	1.175 milioi euro	288 milioi euro	269 milioi euro	% 93	% 23
II.- Ekonomia suspertzeko planak	5.225 milioi euro	1.269 milioi euro	1.215 milioi euro	% 96	% 23
Aurrekontu-baliabideak, guztira (I + II)	6.400 milioi euro	1.557 milioi euro	1.484 milioi euro	% 95	% 23
Abalak (**)	2.400 milioi euro	600 milioi euro	600 milioi euro	% 100	% 25
Baliabideak, guztira	8.800 milioi euro	2.157 milioi euro	2.084 milioi euro	% 97	% 24

(*) "E.7- Enplegu publikoa", "E.8- Enpleguaren kalitatea hobetzea" eta "E.9- EAEko enplegu-sistema hobetzea" izeneko eremu operatiboei lotutako baliabide ekonomikoak ez dira sartu, gehienbat, aurrekontu-eduki zuzenik gabeko ekintzak dituztelako; edo barneko kostuak dituztelako, batik bat.

(**) Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontuen abenduaren 22ko 5/2017 Legearen 9.2 artikulua jasotzen duen enpresa, profesional autonomo eta ETEen aldeko birfidantza-mendua-aurreikuspena

ENPLEGUAREN ETA SUSPERTZE EKONOMIKOAREN ALDEKO ESPARRU-PROGRAMA 2020

2017an EXEKUTATUTAKO BALIABIDEAK, GUZTIRA (milioi eurotan)

1. ARDATZA: ENPLEGUA

14 milioi euro	E.1	ETEak, GIZARTE-EKONOMIA ETA TOKIKO GARAPENA
19 milioi euro	E.2	EKINTZAILETZA SUSTATZEA
20 milioi euro	E.3	GAZTEEN ENPLEGUA SUSTATZEA
55 milioi euro	E.4	ENPLEGURAKO PRESTAKUNTZA
78 milioi euro	E.5	LANERATZEKO PIZGARRIAK
83 milioi euro	E.6	RENOVE BIRGAITZE PROGRAMAK

ENPLEGU-PLANA

269 milioi euro

AURREKONTUA

ENPLEGUA: 269 milioi
euro

SUSPERTZEA: 1.215
milioi euro

ABALAK
600 milioi euro

GUZTIRA
2.084 milioi euro



2. ARDATZA: SUSPERTZE EKONOMIKOA

R.1	INBERTSIOA	613 milioi euro
R.2	BERRIKUNTZA	418 milioi euro
R.3	NAZIOARTEKOTZEA	28 milioi euro
R.4	INDUSTRIALIZAZIOA	156 milioi euro
		ABALAK: 600 milioi euro

4i ESTRATEGIA

1.215 milioi euro

600 milioi euro
ABALAK

ENPLEGU-PLANAREN AURREKONTUAREN EXEKUZIO-MAILA

Enplegu Planaren ikuspegitik, **beraren ardatz guztiek aurrekontuaren exekuzio-maila handia lortu dute 2017an**. “Laneratzeko pizgarriak” ardatzak izan du aurrekontuaren exekuzio-maila handiena (% 107), eta beraren ondoren, Renove Birgaitze programak (% 98). “Gazteen Enplegua Sustatzea” eta “Enplegurako Prestakuntza” ardatzek, berriz, aurrekontuaren exekuzio-maila txikiena izan dute (% 83 eta %79)

1. ARDATZA: ENPLEGUA		2017an aurreikusitako exekuzioa (milioi eurotan)	2017an exekutututakoa (milioi eurotan)	2017rako aurreikusitako aurrekontuaren exekuzio-maila 2017an (%)	2017-2020 aldirako aurreikusitako aurrekontuaren exekuzio-maila 2017an (%)
E.1	ETEak, GIZARTE-EKONOMIA ETA TOKIKO GARAPENA	16 M€	14 M€	% 91	% 22
E.2	EKINTZAILETZA SUSTATZEA	21 M€	19 M€	% 89	% 22
E.3	GAZTEEN ENPLEGUA SUSTATZEA	24 M€	20 M€	% 83	% 20
E.4	ENPLEGURAKO PRESTAKUNTZA	69 M€	55 M€	% 79	% 19
E.5	LANERATZEKO PIZGARRIAK	73 M€	78 M€	% 107	% 26
E.6	RENOVE BIRGAITZE PROGRAMAK	85 M€	83 M€	% 98	% 24
GUZTIRA		288 M€	269 M€	% 93	% 23

4i ESTRATEGIAREN AURREKONTUAREN EXEKUZIO-MAILA

4i Estrategiari dagokionez, programa guztiek % 90etik gertukoa edo handiagoa izan dute aurrekontuaren exekuzio-maila. Berrikuntza Planak, exekuzio-mailarik handiena izan du (% 102), eta beraren ondoren, Inbertsio Programak (% 94). Nazioartekotze Planak eta Industrializazio Planak antzeko exekuzio-maila izan dute, aurreikusita zuten aurrekontuaren % 88koa eta % 90ekoa, hurrenez hurren.

2. ARDATZA: SUSPERTZE EKONOMIKOA		2017an aurreikusiitakox exekuzioa	2017an exekutututakoa (milioi eurotan)	2017rako aurreikusitako aurrekontuaren exekuzio-maila 2017an (%)	2017-2020 aldirako aurreikusitako aurrekontuaren exekuzio-maila 2017an (%)
R.1	INBERTSIOA	650 M€	613 M€	% 94	% 23
R.2	BERRIKUNTZA	410 M€	418 M€	% 102	% 24
R.3	NAZIOARTEKOTZEA	31 M€	28 M€	% 90	% 22
R.4	INDUSTRIALIZAZIOA	178 M€	158 M€	% 88	% 21
GUZTIRA		1.269	1.215	% 96	% 23

2017ko ERAGINAREN EMAITZEN IKUSPEGI OROKORRA

2017an, Esparru Programaren eraginaren emaitza nagusiak honako hauek izan dira: **15.799 enplegu sustatu dira; 1.557 enpresa sortzen lagundu da; 35 ikerkuntza-proiektu finantzatu dira; 245 ETEri lagundu zaie atzerriko merkatuetan sartzen, eta 1.725 ETEri lagundu zaie berrikuntza-, modernizazio- eta hedapen-proiektuetan.** Halaber, azpiegituren 32 proiektu estrategiko jarri dira martxan.

Emaitza horiek, % 27ko ekarpena egin diete Enpleguaren Ardatzean 2017-2020 aldirako aurreikusitako helburuei. Suspertze Ekonomikoaren Ardatzean izan duen eraginak ekarri du % 30etik gorakoa izatea aurreikusitako helburuen batez besteko betetzea, nazioartekotzekoarena izan ezik (% 20).

	ADIERAZLEAK	AURREIKUSITAKO HELBURUAK (2017- 2020)	BENETAKO EMAITZAK (2017)	2017-2020 ALDIRAKO HELBURUEN BETETZE- MAILA
ENPLEGUAREN ARDATZA	Sustatu diren lanpostuak, guztira (*)	58.000 (*)	15.799	% 27
	Laguntza jaso duten enpresa berriak	6.000	1.557	% 26
SUSPERTZE EKONOMIKOAR EN ARDATZA	Finantzatu diren ikerketa-proiektu estrategiko berriak	100	35	% 35
	Atzerriko merkatuetan sartzeko laguntza jaso duten ETEak	1.200	245	% 20
	Modernizatzeko eta hedatzeko proiektuetan laguntza jaso duten ETEak (batez ere, industriaren arlokoak)	1.100	431	% 39
	Laguntza jaso duten ETEen berrikuntza-proiektuak	4.100	1.294	% 32
	Azpiegiturretako inbertsio-proiektu estrategikoak	40	34	% 85

* Hasieran, 45.000 lanpostu sustatzea aurreikusi zen. Baina aurreikuspen horri, 13.000 lanpostu gehitu zaizkio: Administrazio Orokorrean, Osakidetzan, Hezkuntzan eta Ertzaintzan atera diren lan-eskaintza publikoetan gehitutako lanpostuak, hain zuzen ere.

ENPLEGUAREN ARDATZAREN 2017ko ERAGINAREN EMAITZEN IKUSPEGI XEHATUA

2017-2020 ALDIRAKO KONPROMISO PUBLIKOAK		ADIERAZLEAK		AURREIKUSITAKO HELBURUAK (2017-2020)	BENETAKO EMAITZAK (2017)	2017-2020 ALDIRAKO HELBURUEN BETETZE-MAILA
1	58.000 lanpostu sustatu*	1.1	Enpresa berriak sortzearen ondorioz sortu diren lanpostuen kopurua	12.000	3.713	% 31
		1.2	Etxebizitzak eta ekipamendu publikoak birgaitzeko laguntza publikoari lotutako lanpostuen kopurua	15.000	3.214	% 21
		1.3	Kontratuak egiteko pizgarrien bidez sortutako lanpostuen kopurua.	18.000	4.651	% 26
		1.4	Lan-eskaintza publikoetan sartu diren plazen kopurua (txanda irekian)	13.000	4.221	% 32
		Sustatu diren lanpostuak, guztira		58.000	15.799	% 27
2	6.000 enpresa berriri laguntzea	2.1	Mikroekintzailatza eta autonomo berrien kopurua	5.000	1.278	% 26
		2.2	Enpresa berritzaile berrien kopurua	1.000	279	% 28
		Laguntza jaso duten enpresa berriak, guztira		6.000	1.557	% 26

* Hasieran, 45.000 lanpostu sustatzea aurreikusi zen. Baina aurreikuspen horri, 13.000 lanpostu gehitu zaizkio: Administrazio Orokorrean, Osakidetzan, Hezkuntzan eta Ertzaintzan atera diren lan-eskaintza publikoetan gehitutako lanpostuak, hain zuzen ere.

SUSPERTZE EKONOMIKOAREN ARDATZAREN 2017ko ERAGINAREN EMAITZEN IKUSPEGI XEHATUA

2017-2020 ALDIRAKO KONPROMISO PUBLIKOAK		ADIERAZLEAK		AURREIKUSITA KO HELBURUAK (2017-2020)	BENETAKO EMAITZAK (2017)	2017-2020 ALDIRAKO HELBURUEN BETETZE-MAILA
3	100 ikerketa-proiektu estrategiko berri finantzatzea	3.1	Finantzaketa jaso duten ikerketa-proiektu estrategikoen kopurua	100	35	% 35
		Finantzaketa jaso duten ikerketa-proiektu estrategikoak, guztira		100	35	% 35
4	1.200 ETERi laguntza atzerriko merkatuetan sartzen	4.1	Nazioartekotzeko planak egiteko laguntza jaso duten ETEen kopurua	200	28	% 14
		4.2	Nazioartekotzeko proiektuak martxan jartzeko ekintzetan laguntza jaso duten ETEen kopurua	1.000	217	% 22
		Atzerriko merkatuetan sartzeko laguntza jaso duten ETEak, guztira		1.200	245	% 20
5	1.100 ETERi laguntza —batik bat, industriaren arlokoak—, modernizatzeko eta hedatzeko beren proiektuetan	5.1	Prozesu produktiboak hobetzeko berrikuntza teknologikoko proiektuak dituzten ETEen kopurua	1.000	371	% 37
		5.2	Hazkunde- eta hedapen-proiektuak dituzten ETEen kopurua	70	51	% 73
		5.3	Zailtasunei aurre egiteko laguntza jaso duten ETEen kopurua	30	9	% 30
		Modernizatzeko eta hedatzeko proiektuetan laguntza jaso duten ETEak, guztira		1.100	431	% 39
6	4.100 berrikuntza-proiektuak jaso dute laguntza ETEetan	6.1	Kudeaketa aurreratuko, berrikuntzarako eta lehiakortasunerako proiektuak dituzten ETEen kopurua	600	410	% 68
		6.2	I+G arloko proiektuak eta produktu berriak garatzeko proiektuak dituzten ETEen kopurua	3.500	884	% 25
		Berrikuntza-proiektuetarako laguntza jaso duten ETEak, guztira		4.100	1.294	% 32

GAZTEEN ENPLEGUAREN ARDATZAREN 2017ko ERAGINAREN EMAITZEN IKUSPEGI XEHATUA

Gazteen enpleguari dagokionez, 2017an, **lan-aukera eman zaie 6.856 gazteri, zenbait programaren bidez:** enpresek beraien titulazioarekin zerikusia duten enpleguetan kontratatzea, gazteen ekintzailetza, hezkuntza-mundutik lan-mundurako trantsizioa lehenengo esperientzia bat, nazioarte-esparruan esperientzia praktikoa hartzeko bekak eta langileria berritzea lan-eskaintza publikoen eta errelebo-kontratuen bidez.

Programek lortutako emaitzek % 34ko ekarpena egin diote 2017-2020 aldirako aurreikusitako helburuak betetzeari.

ADIERAZLEAK	AURREIKUSITAKO HELBURUAK (2017- 2020)	BENETAKO EMAITZAK (2017)	HELBURUEN BETETZE- MAILA
Lehen Aukera programa	3.000	498	% 17
Hezkuntza-mundutik lan-mundurako trantsizioa	5.000	2.166	% 43
Gazte ekintzaileei laguntzea	3.500	847	% 24
Tokiko eta eskualdeko enplegu-planen bidez kontratatutako gazteak	2.500	834	% 33
Gazteak, lan-eskaintza publikoetan	3.200	1.868	% 58
Errelebo-kontratua	400	31	% 8
Gazteen Itzulerako Programa	200	2018an hastekoa	-
Prestakuntza - enplegurako bekak	1.800	612	% 34
Sektore berezietako programak	400	2018an hastekoa	-
GAZTEEN ENPLEGURAKO PROGRAMAK, GUZTIRA	20.000	6.856	% 34

4.-

EGINDAKO JARDUERA NAGUSIAK

ENPLEGUAREN ARDATZEAN EGINDAKO JARDUERA NAGUSIAK

2017-2020 Enplegu Plan Estrategikoa 2017ko azaroaren 28an onartu zen, 1.175 milioi euroko zuzkidurarekin. Beraren barruan, nabarmentzekoak dira 2017rako honako jarduketak hauek:

1

2017ko LAN-ESKAINNTZA PUBLIKOA ONESTEA

2017ko abenduaren 5ean Gobernu Kontseiluak onetsi zuen EAEko Administrazio Publikorako **2017ko lan-eskaintza publikoa**, osasunaren, hezkuntzaren, segurtasunaren eta administrazio orokorraren esparruetan. Lan-eskaintza publiko horretan 4.580 plaza eskaini dira, horietako gehienak txanda irekian; horietatik, 3.335 osasunaren esparruan dira, 795 hezkuntzarenean, 300 segurtasunarenean eta 150 administrazio orokorrarenean. Plaza horiek dagozkien deialdien bitartez betetzekoak dira.

2

HEZKUNTZA-MUNDUTIK LAN-MUNDURAKO TRANTSIZIOKO PROGRAMA ETA GAZTEEN EKINTZAIETZAKO PROGRAMA

Ikasleen artean hezkuntza-mundutik lan-mundurako trantsizioa eta ekintzailtza sustatzea, Eusko Jaurlaritzaren, EAEko hiru unibertsitateen, lanbide-heziketako zentro publikoen elkartearen eta HETEL gizarte-ekimeneko lanbide-heziketako zentro pribatu-itunduen elkartearen arteko esparru-akordioaren bidez.

Bi programa diseinatu dira akordio beraren pean, unibertsitateko eta lanbide heziketako ikasle gazteei zuzenduta, lan-munduan lehenengo aldiz sartzeko aukera emateko eta kultura ekintzailea sustatzeko, ekintzailtza-proiektuak egiten lagunduz. Trantsizio-programak **3 hilabeteko lehenengo esperientzia praktikoa eman die 1.126 gazteri** (432 gizon eta 694 emakume). Ekintzailtza-programaren bidez, **150 proiektu sustatu dira**, prestakuntza-lantegien, mintegien, aholkularitzaren eta ideiei laguntzearen eta ekintzaileentzako azpiegiturak eskaintzearen bidez.

3

ENPLEGUA SUSTATZEKO TOKI-EKINTZAK

Honako hauek sustatu dira: enplegua sustatzeko tokiko ekintzen bidez langabeak kontratatzea, eta laneratzeko zailtasun bereziak dituzten pertsonen enplegarritasuna hobetzeko **enplegua sustatzeko** jarduketak (3 eta 6 hilabete bitarteko kontratuak); tokiko enpresek langabeak **kontratatzea** (gutxienez 3 hilabeteko kontratuak); oinarri teknologikoa duten edo berritzaileak diren tokiko enpresa pribatuek **enpresa-proiektu berriak** edo hedapen-proiektuak egitea (gutxienez 6 hilabeteko kontratuak). Programako jarduketek **2.199 pertsona** kontratatzea sustatu dute (1.244 emakume eta 955 gizon).

EKINTZAILEENTZAKO LAGUNTZA-PROGRAMA

Ekintzailetza eta kultura ekintzailea sustatzea, Ekintzailetzako Toki Proiektuen barruan, **ekintzaile izan daitezkeen pertsoneri lagunduz beren negozio-ideiak martxan jartzeko faseetan zehar**. Programak lau laguntza-lerro espezifiko ditu: negozio-idea sortzeko, aztertzeko eta egituratzeko lehenengo faserakoa; negozio-idea definitua duten enpresa-proiektu berriak martxan jartzea sustatzekoa; jarduera hasteko behar diren aktibo finkoak finantzatzeko laguntzen bidez proiektuak gauzatzekoa; eta jarduera hasi berria duten eta negozioaren gutxieneko errentagarritasuna ziurtatzeko laguntza behar duten pertsonentzako enpresa finkatzekoak.

2017an, **326 ekintzailereri** lagundu zaie **negozio-idea garatzen** (153 gizon eta 173 emakume); **234 ekintzailereri, jarduera martxan jartzen** (119 gizon eta 115 emakume); **234ri, proiektua gauzatzen** (119 gizon eta 115 emakume); eta **725i, jarduera finkatzen** (386 gizon eta 339 emakume).

GIZARTERATZEKO ETA LANERATZEKO PROIEKTU BEREZIAK

Lan-merkatuan sartzeko zailtasun handienak dituzten pertsoneri zuzendutako prestakuntzako eta lan-aktibazioko jarduketa integralak eskaintzen dituzten enplegarritasuna hobetzeko proiektu konbinatuak garatzea. Jarduketa horien barruan honako hauek daude, nagusiki: oinarrizko gaitasunetako eta gaitasun profesionaletako prestakuntza edo ikas-ekineko modalitatean lanpostuan ikasteko prestakuntza-jarduerak; parte hartzen duten pertsonak kontratatzea bultzatzen duten enplegu-aukeren prospekzioa; emaitzen jarraipena eta ebaluazioa egiten duten laneratze-ibilbide pertsonalizatuak sustatzen dituzten orientazio- eta lanbideratze-jarduerak; eta gutxienez 6 hilabetez kontratatzeko laguntzak.

2017an, **26 proiektu berezi** onetsi dira, eta horietan **2.609 pertsonak** hartu dute parte.

SUSPERTZE EKONOMIKOAREN ARDATZEAN EGINDAKO JARDUERA NAGUSIAK: INDUSTRIALIZAZIOA

Bi plangintza-tresna onetsi dira: **“Basque Industry 4.0” 2017-2020 Industrializazio Plana**, 2017ko uztailaren 18an, 1.225 milioi euroko zuzkidurarekin, eta **2020 Ekintzailetzako Erakunde Arteko Plana**, 2017ko ekainaren 27an, 295 milioi euroko zuzkidurarekin.

1

FABRIKAZIO AERONAUTIKO AURRERATUKO ZENTROAREN INAUGURAZIOA

Fabrikazio Aeronautiko Aurreratuko Zentroa azaroan inauguratu zen, Zamudioko Parke Teknologikoan; **fabrikazio aeronautiko aurreratuko puntako zentroa bilakatu da, nazioarteko eragina duela, eta industria-prozesuak eta makineria aurreratua hobetzera zuzenduta dago**. Arlo publikoaren eta pribatuaren arteko ekimena da, zeinak 9 milioi euroko hasierako inbertsioa baitu. Horretan parte hartzen dute Eusko Jaurlaritzak, Bizkaiko Foru Aldundiak, Euskal Herriko Unibertsitateak eta enpresa multzo batek (49 enpresak osatua: aeronautika-arlokoak, makina-erremintaren eta osagaien hornitzaileak, 4.0 arloko teknologien hornitzaileak...).

Zentroaren jardueraren helburua da heldutasun-maila handiko ekoizpen-teknologietan aurreratzea da (“Manufacturing Readiness Levels 6-7”); horrek esan nahi du benetakoen antzeko tamainako eta funtzioko proiektuak garatzeko makinak eta teknologiak erabiltzea eta EAEko enpresetan epe laburreko aplikazioa izatea. Zentroak 1,2 milioi euroko urteko aurrekontua du; horietako % 65 baino gehiago etorriko dira enpresentzat garatzen dituen kontratuetatik.

2

“BASQUE CYBERSECURITY CENTRE” ZIBERSEGURTASUNERAKO EUSKAL ZENTROA ABIARAZTEA

Zibersegurtasunerako Euskal Zentroa honako helburu hauekin sortu da: **EAEko enpresetan zibersegurtasuna txertatzea** sustatzea, kudeaketako berrikuntzako funtsezko osagai gisa hartuta, eta laguntzea azpiegitura kritikoei eta enpresei prebentzio- eta erantzun-estaldura eraginkor eta fidagarria ematen zibersegurtasunaren arloko balizko mehatxu eta erasoen aurrean. CERT publikoa bilakatzeko asmoa du (“Computer Emergency Response Team”), hau da, informatika-segurtasuneko gorabeherari erantzuteko taldea, mundu osoan zehar dauden CERT publiko eta pribatuen sareari lotua.

Zentroa Miñako Parke Teknologikoan dago, eta irailean hasi da funtzionatzen, SPRIren mendeko unitate zentralizatu batetik lan egiten, Ertzaintzarekin eta EJIarekin (Eusko Jaurlaritzaren Informatika Elkartea) etengabe koordinatuta.

“GAUZATU INDUSTRIA” PROGRAMA

Oinarri teknologikoa duten edo berritzaileak diren ETEak sortzea eta garatzea sustatzea, enplegua sortzen duen inbertsioari laguntzea, eta gizarte-kohesioa sustatzeko eremu geografiko ahulenak biziberritzea bultzatzea. Programaren ardatz nagusia da oinarri teknologikoaren eta berrikuntzaren maila handiko sektoreetan ekintzaile izateko eta arriskuak onartzeko gaitasuna sustatzen duten baldintzak ezartzea eta bultzatzea; horretarako, finantzaketa jartzen du ETEen esku, aurrerapen itzulgarrien bidez (% 25 eta % 35 bitartekoak). Helburua da produktu berriak garatzea sustatzea, produktu tradizionalentzako merkatu berriak zabaltzea, fabrikazio-prozesuen teknologia hobetzea...

2017an, **42 enpresari** lagundu zaie; **79 milioi euroko inbertsioa hitzartu da**, eta **471 enplegu sortu dituela zenbatesten da**.

ZAILTASUNAK DITUZTEN ENPRESEI LAGUNTZEKO BANAKAKO KONPONBIDEAK ZEHAZTEA

Erakundeen arteko eta arlo publikoaren eta pribatuaren arteko lankidetzak, beren bideragarritasunari eragiten dioten egoerak eta arazo zehatzak konpontzeko **berariazko laguntza behar duten enpresei laguntzeko, aholkularitza emateko eta kudeaketa-zerbitzuak emateko**. Zerbitzu horien barruan laguntza-programek babesten ez dituzten jarduketak sartu dira, honako esparru hauetan: laneko harremanak, enpresa berriro aurrera ateratzeko inbertsioak bilatzea eta haiekin harremanetan jartzea, zerga-zorra geroratzeko erraztasunak aztertzea, birfinantzatzeko bideak, hartzekodunekin edo hornitzaileekin akordioak lortzea...

Filosofia hori oinarri hartuta, zailtasunak dituzten eta 5.321 pertsonari enplegua ematen dieten 31 enpresaren kasuak aztertu, eta egoera konpontzen lagundu zaie. Horrez gain, 2.607 langileri eragiten dieten 16 kasu gehiago aztertu dira.

ETEEi, BANAKO ENPRESABURUEI ETA PROFESIONAL AUTONOMOEI FINANTZA-LAGUNTZA EMATEKO PROGRAMA

Finantzaketa-lerro bat sortzea enpresa txiki eta ertain, enpresaburu eta profesional autonomoentzat, **likideziako eta kapital zirkulatzaileko beharrezanean erantzuteko behar den banku-finantzaketa lortzeko**. Eragiketarako finantza-erakundeekiko hitzarmenen bidez eratzen dira, maileguak abantaila-egoeretan eskaintzeko; zenbatekoa 50.000 eta 650.000 euro bitartekoa da ETEentzat, eta 5.000 eta 100.000 euro bitartekoa enpresaburu eta profesional autonomoentzat. Horrez gain, lankidetzak hitzarmenak egiten dira Elkar Bermatzeko Sozietateekin, formalizatutako finantzaketa-eragiketarako abala emateko.

SUSPERTZE EKONOMIKOAREN ARDATZEAN EGINDAKO JARDUERA NAGUSIAK: BERRIKUNTZA

1

ESS BILBAO ZENTROARI BURUZKO AKORDIOA

ESS Bilbao nazioarteko erreferentziako zentroa da neutroi-teknologietan; ezagutza eta balio erantsia ematen du Espalazio bidezko Neutroien Iturria Europako proiektua garatzeko gauzazko ekarpenaren bidez. Proiektua etorkizuneko ikerketa-azpiegiturarik handienetako bat da, eta gaur egun eraikitzen ari da Lund-en (Suedia).

Testuinguru horretan, uztailan akordio bat sinatu da Eusko Jaurlaritzaren eta Espainiako Gobernuaren artean, ESS Lund-en bazkide sortzaile gisa ERIC Europako partzuergoan (European Research Infrastructure Consortium) sartzeko baldintzei buruz. Bi administrazioek zehaztu dituzte azpiegitura eraikitzeko ERIC partzuergoarekin hartutako akordioak betetzeko egin behar diren ekarpen ekonomikoak: Espainiako Gobernuak 42 milioi euroko ekarpena egingo du, eta Eusko Jaurlaritzak, 22 milioi eurokoa. Aurreikusita dago 2025erako amaituta egotea eraikuntza. 2018ko apirilaren 27an ERICen Batzordeak berretsi du atxikipena

2

EAEko TEKNOLOGIA PARKEEN SAREAREN PLAN ESTRATEGIKOA (2017-2020) ONESTEA

EAEko parke teknologikoen sareak (zeina Araba, Bizkaiko eta Gipuzkoako parke teknologikoei osatzen baitute) irailean onetsi du bere 2017-2020 aldirako Plan Estrategiko berria, EAEn berrikuntza eta garapen teknologikoa sustatzeko eta egituratzeko eragile nagusia eta I+G+b arloko nazioarteko erreferente bilakatzeko helburuarekin. Plana egiteko, EAEko erakunde guztien, unibertsitateen eta enpresen ordezkariak parte hartu dute.

Planaren ardatz nagusia da **teknologia-ezagutzaren trukaketarako ekintzak areagotzea enpresa, eragile teknologiko eta unibertsitateen artean**, sustatzea parkeetako enpresa berritzaileak sortzeko eta handitzeko proiektuak, eta sendotzea enpresa-proiektu estrategikoak erakartzeko eta sarea nazioartean ikusgaiago egiteko ekimenak. Halaber, aurreikusten da **gaur egungo instalazioak handitzea eta beste parke teknologiko eta industrial bat zabaltzea Ezkerraldea-Meatzaldean**.

3

IKERKUNTZA-PARTZUERGO BERRI BAT ERATZEA SUSTATZEKO AKORDIOA

EAEko Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako Kontseiluak, 2020 Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako Planaren 3. fasearen barruan, **EAEko teknologia-partzuergo berri bat sortzea onetsi du: 16 zentrok osatuko dute, elkarlan bidezko zentroak zein zentro teknologikoak**, eta 3.590 langile izango lituzkete, eta 265 milioi euroko urteko diru-sarrerak.

Partzuergoaren helburua izango da balio handiko zerbitzuak eskaintzea EAEko enpresei, barietate lehiakortasun globala hobetzeko, EAEko zientzia eta teknologia atzerrian proiektatzea, herrialdearen erronkekin bat datorren ikerkuntza-agenda erkide bat zehaztea, eta osatzen duten eragileen arteko lankidetzaren eraginkorrerako dinamikak sustatzea.

ZIENTZIA-AZPIEGITURA BERRIAK ABIARAZTEA

2017an, **3 zientzia-azpiegitura berriren instalazioak inauguratu dira**, gizarte-zientzien arloan, neurozientzien arloan eta osasun-arloan **ikertzekoak**:

- Euskal Herriko Unibertsitateko **Micaela Portilla Ikerketa Zentroa** zuzenduta dago Gizarte- eta Giza Zientzietako ikerketa zientifikorako zerbitzua ematera; jakintza-arlo horrek pisu espezifikoa handia dauka Arabako campusean. Zentroak EAEko ikerkuntzarako erreferentzia-gunea izan nahi du, eta linguistikako bi laborategi erkide ditu (Hizketaren Pertzepzioko Laborategia eta Linguistika Esperimentaleko Laborategia), eta beste 3 Arkeologiakoak.
- **Achúcarro Ikerketa Zentroa**, zeinaren Instalazio berriak Euskal Herriko Unibertsitateko Parke Zientifikoan baitaude, neurozientzien esparruko nazioarteko garrantziko ikerkuntza-proiektuak garatzera zuzenduta dago; espezializatuta dago garunaren funtzio fisiologiko eta fisiopatologikoetan, eta sortutako ezagutza hedatzeko eta komunikatzeko eragile aktiboa da. Zentroak 80 pertsonako plantilla dauka, eta aurreikuspenak daude 2021ean 100era handitzeko.
- **BIO Arabak, Arabako Osasun Ikerketarako Institutu berriak**, bere barruan biltzen ditu Arabako Erakunde Sanitario Integratuaren inguruan egindako ikerkuntza publiko guztia, Euskal Herriko Unibertsitatearekin, beste zenbait erakunde-eragilerekin eta ingurune zientifiko-tekniko eta enpresarialekin lankidetzan. Zentroaren helburua da biomedikuntzaren, epidemiologiaren, osasun publikoaren eta osasun-zerbitzuen arloetako ikerkuntza, sortutako ezagutza zientifikoa hedatzeko asistentzia-praktika medikora, biztanleen osasuna hobetze aldera.

TALENTU IKERTZAILEA: IKERBASQUEREN 2018-2021 PLANA ETA UPV-EHUren LAN-ESKAINNTZA

Ikerbasque Zientziarako EAEko Fundazioaren lana sustatzea, beraren 2018-2021 Plan Estrategikoa onartuz; horretan, garrantzia berezia ematen zaio ikerketa zientifikoa sustatzeari, honako 3 esparru hauen inguruan antolatutako zenbait jarduera-lerroren bidez: talentua, kudeaketa bikaina eta EAEko zientzia-sistema sustatzea. Erronka nagusi ditu, besteak beste, **plantilla handitzea 120 ikertzaile berri hartuz** (% 40 emakumeak izango dira) zeinak gaur egun dituen 240ra gehituko baitzaizkie, eta produkzio zientifikoa sustatzea, **argitalpen-bolumena urteko eragin handiko 1.250 artikulura iristeko** eta 80 milioi euroko itzulkina lortzeko.

Horrekina batera, **Euskal Herriko Unibertsitateak** onetsi du lan-eskaintza publiko bat argitaratzea, irakasle eta ikerlarientzat; 161 plaza izango dira guztira, eta horiei esker profil kualifikatu eta lehiakorrek sortzea sustatuko da, ikerketa zientifikoa garatzeko eta indartzeko.

SUSPERTZE EKONOMIKOAREN ARDATZEAN EGINDAKO JARDUERA NAGUSIAK: NAZIOARTEKOTZEA

1

EUSKADIKO NAZIOARTEKOTZE-AGENTZIA SORTZEA (“BASQUE TRADE INVEST”)

Euskadiko Nazioartekotze Agentzia honako helburu honekin sortu da: EAEko ekonomia nazioartekotzea sustatzea, enpresei lagunduz euren nazioarteko proiektzioan eta eskumena duten eragileei atzerriko inbertsioak erakartzen lagunduz. Horretarako, agentziak planteatu du **Eusko Jaurlaritzaren nazioartekotzeko gaitasunen eta aktiboen integrazioa eta sendotzea**, eta balio erantsiko zerbitzuen zorro berria eskaintzea, zenbait enpresa-profiletara egokitzeko segmentatuta, **bere gaitasunak eta eragile laguntzaileenak uztartzen dituen eredu integral batean**.

Hala, agentziak **Adimen Lehiakorreko Unitate** bat izango du, merkatuen ezagutza aurreratua sortzeko, eta, hartara, enpresentzako aukera berriak zabaltzeko. Horretarako, merkatuen joerak aztertuko ditu; aukera berriak hauteman eta kudeatuko ditu, eta bere politikak ebaluatu eta besteen politikak esploratu. Eta ezagutza-aliantzak sortzea bultzatuko du nazioartekotzearen esparruan, EAEko ekonomiaren eta enpresen onurarako. SPRIren Kanpoko Sarearen bulego komertzialak agentzia berriaren mende geratuko dira.

2

LONDRESEKO SPRIren BULEGOA ZABALTZEA ETA BREXITERAKO EUSKO JAURLARITZAREN BATZORDEA ERATZEA

Erresuma Batuen eta Euskal Autonomia Erkidegoaren artean dauden lotura ekonomikoak sendotzeko eta negozio-aukera berriak sustatzeko, apirilean **SPRIren bulego berri bat zabaldu zen Londresen**, eta, geroago, maiatzean, **Brexiterako Eusko Jaurlaritzaren Batzordea eratu zen**.

Londresekoa EAEren **nazioarteko sareko 16. bulegoa** da, eta elkargunea izan nahi du EAEko nazioarteko merkataritzarako ekonomiari garrantzitsuenetako batean, eta aldi berean Britainia Handiko enpresa eta erakundeei EAEko zerbitzuak eta produktuak eskaintzeko tokia. Bestalde, Brexiterako Eusko Jaurlaritzaren Batzordeak, zeina arlo publikoaren eta pribatuaren arteko ekimena baita, helburu du **hautematea zer erronka eta zer aukera** zabaltzen zaizkion EAERI testuinguru berrian.

3

“BASQUE CONSORTIUM” NAZIOARTEKOTZEKO EUSKAL PARTZUERGOAREN PROIEKTUETARAKO FINANTZIAZIOAREN OINARRIAK EZARTZEKO HITZARMENA

Nazioartekotzeko Euskal Partzuergoa 2014an eratu zen arlo publikoaren eta pribatuaren arteko lankidetzarako plataforma gisa, **egitura integratu bat edukitzeko EAEren nazioartekotzea sustatzeko ekimenen politika publikoa koordinatzeko**. 2017ko martxoan, Eusko Jaurlaritzak onetsi zuen **lankidetzaren hitzarmen bat sinatzea Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako Foru Aldundiekin, beren baterako proiektuen finantzaketaren oinarriak ezartzeko**. Hitzarmenaren pean, zenbait alderdi zehaztu dira: baterako proiektuetako alderdi bakoitzaren partaidetza-araubidea, kostu gehigarrien banaketa, eta konpromisoak behar bezala exekutatzaren diren jarraitzea, zaintzea eta kontrolatzea, besteak beste.

“BASQUE COUNTRY LICITACIONES” PLATAFORMA AURKEZTEA

“Basque Country Licitaciones” plataformak, zeina Euskadiko Nazioartekotze Agentziak bultzatu baitu, helburu du **EAEko enpresek nazioarteko funtsek sustatzen eta finantzatzen dituzten proiektu aldeaniztunen lizitazioetan parte hartzen laguntzea**. Horretarako, plataformak proiektuak identifikatzen ditu; EAEko enpresa egokienei aurkezten dizkie; beroriei lagun egiten die erakunde aldeaniztunen aurrean proposamena kokatzen, eta hautagaitzak prestatzen ditu EAEko Merkataritza Ganbarekin lankidetzan.

2017an, 7 bidaia egin dira harremanak egiteko deialdiak egiten dituzten organismoekin, eta EAEko enpresak gomendatzeko Kolonbian, Mexikon, eta Argentinan azpiegituren, hiri-garapenaren eta uraren eta saneamenduaren sektoreetako proiektuak garatzeko.

NAZIOARTEKO ENPRESA-MISIOAK

2017an, zenbait **erakunde- zein enpresa-bidaia egin dira kanpo-merkataritzarako gakoak diren zenbait jomugatar**a:

- **Txina:** Eusko Jaurlaritzaren eta SPRIren ordezkariak baten erakunde- zein enpresa-bidaia; horretan 10 bisita eta bilera egin ziren han kokatuta dauden EAEko enpresekin; Batz konpainiaren (Mondragon korporazioa) laugarren instalazioaren inaugurazioan parte hartu, eta topaketak egin ziren Jiangsu eskualdeko tokiko gobernuarekin eta enpresa-ganbarearekin.
- **Londres:** Industria-aukera berriak bilatzeko erakunde-misioa; horretan sektorekako jardunaldia teknikoak egin ziren, energiaren eta trenbidearen arloetako EAEko 20 enpresa baino gehiago harremanetan jartzeko enpresa britainiarrekin, eta negozio-bide berriak zabaltzeko sektore horietan.
- **Hannover:** SPRIk lagun egin zien EMO Hannover makina-erreminta arloko nazioarteko feria nagusian egon ziren EAEko 49 enpresei. EAEko enpresen presentziak pisu oso handia izan du, Espainiaren ordezkarietan doazen enpresen % 65 izan baitira.
- **Kolonbia:** Eusko Jaurlaritzaren ordezkariak baten bidaia ofiziala; horretan, EAEko lehendakariak topaketa bat izan zuen Kolonbiako Lehendakariordearekin eta Hezkuntzako Ministroarekin, identifikatzeko zer esparrutan egin daitekeen lankidetzak ekonomia, kultura, hezkuntza eta bakearen eta bizikidetzaren arloetan, EAEko eredia erreferentzia hartuta.
- **Munich:** Alemaniako erakunde- zein enpresa-bidaia, EAEko ETEen digitalizazioa sustatzeko erakunde-apustuaren esparruaren barruan. Bidaiaren barruan, bisita bat egin zen Bavariako Digitalizazio Zentrora, eta topaketa bat egin zen Ekonomiako, Hedabideetako, Energiako eta Teknologiako ministroarekin.
- **Kanada:** Ekonomia-, erakunde- eta kultura-helburuak zituen Ottawa, Montreal eta Quebecerako bidaia ofiziala; horretan EAEko lehendakariak topaketak egin ditu agintariekin, erakundeekin eta enpresen eta kultura-arloaren ordezkariarekin, sustatzeko erakundeen arteko lankidetzak, CETA akordioaren (Europar Batasunaren eta Kanadaren arteko Merkataritza Akordioa) ostean zabaltzen diren aukera berriak eta bizikidetzak-arloko lankidetzak.
- **Arabiar Emirerri Batuak:** Erakunde- zein enpresa-bidaia; helburu zuen *in situ* esploratzea zer aukera ematen dion merkatu horrek EAEko ekonomiari, eta ezartzea maila handiko harremanak han kokatuta dauden EAEko enpresei lagungarri izateko.

5.-

40 INBERTSIO-PROIEKTU ESTRATEGIKO BERRI

40 INBERTSIO-PROIEKTU ESTRATEGIKO BERRI. LABURPENA

Esparru Programak 40 inbertsio-proiektu identifikatu ditu 2017-2020 aldian garatzeko, eskema honi jarraituz:

PROIEKTUAK	PROIEKTUAK, GUZTIRA	HASITAKO PROIEKTUAK	AURREKONTUA (2017-2020)	EGIKARITUTAKOA (2017-12-31n)
Azpiegiturak eta mugikortasun jasangarria	16	13	1.243 milioi euro *	409 milioi euro **
Hiri- eta ingurumen-berroneratzea	13	10	126 milioi euro	19 milioi euro
Lehen eta bigarren hezkuntzako hezkuntza-azpiegiturak gehitzea	3***	3***	44 milioi euro	23 milioi euro
Osasun-azpiegiturak gehitzea	8	8	39 milioi euro	48 milioi euro
GUZTIRA	40	34	1.452 milioi euro	499 milioi euro

* AHTren 2017-2025 aldirako aurrekontua barne (755 milioi euro)

** AHTren 2017ko egikaritzea barne (105 milioi euro)

*** Hezkuntza-azpiegiturak 3 multzotan banatzen dira, lurralde historiko bakoitzeko bat

- Araban 3 zentro daude, eta horietatik 1 ari da egikaritzen
- Bizkaian 5 zentro daude, eta horietatik 4 ari dira egikaritzen
